

# ERENDERI'KO MADALEN DEUNAREN ELIZATXOAN

XABIER

Txeetasun batzuen billa nabillerarik, 1933.go urtean sortutako «Yakintza» billeratik beingo aldizkarian lbeltza-Otsaillaren lenengo zenbakia arkitu nuben eta poz aundiz bere arkibidean non azaltzen dan Jauregi tar Koldobika gure erritar ospetsuak bere zaindariaren Elizatxoari buruz egindako olerki sakon eta maitekor bat.

Berau irakurri ondoren, ezagun ez nuan olerki baten aurrean arkitu nintzan bereak asko irakurri al izanik eta iruditzen zait nere antzeko erritar asko izango diela era ontan.

Argaitik olerki onek esagutzea merezi duela iruditzen zait, ikusi dezaten oraingo Errenderiarrak zenbait añakoa zan gure olerkariak maite izan zuan bere erria eta bertako gauz guztiak.

Aurten Otsaillaren 2an amabost urte igaro dira gure olerkaria il zala eta beragaz zein gutxi egin duan bere erriak bear dan bezela goratzeko.

Izan dedilla beraz olerki onen argibidearekin Jauregi tar Koldobika (Jautarkol) erritar maitale eta goi mallako olerkariari ordaiñetan dagoen erriaren gogoragarri bat.

Eliza txiki ta ixila,  
oroigai eztiñen kutxa,  
malko samiñen ontzia,  
gure asabak, esku zabalez,  
maitasun-pitxiz josia,

Anai-gudate luzean  
gure aitonon babesu,  
otoitz-leku paketsua,  
maitasun-deiez, eskari gartsuz,  
malko beroz gantzutua.

Begi eder-negartsuaz  
beti maiteki begira  
eskuan dun gurutzari,  
aldare-erdian dago Madalen  
bide-erakusle, zaindari.

Maitedamu zindoaren  
zurezko irudi bizia,  
lore il, Euzkiak piztua;  
suzko ondartzatik itzal-kabira  
jo zun uso zauritua.

Maite-miñez zaurituta  
kabirik-kabi zebiltzan  
abestuz txinta eroak...  
Josu-begien maite-txinpartak  
ere zizkitzun egoak.

Ere zizkitzun egoak,  
erori ziñan lurera,  
ustu zenduan negarrez  
barrengo pozoi ustela eta  
bete zindun Zeru-garrez.

Esan, Madalen ederra,  
grinñen atsegin-ondartzan  
eztirik ote dagoan,  
t'oñaze-eztenik arki al-leiken  
Josu'ren oñen ondoan.

Esan, gizarte-algarak  
ez al-diran geienetan  
naigabearen txantxoak,  
t'ez ote diran zorion-ibai,  
oben-nekezko malkoak.

Zure biotzaren kaian  
sartu oi-ziran ontziak  
zekarzkitzuten emaitzak,  
¿zorionaren lurriña al-ziran,  
ala amets-gezur-agintzak?

Zure españetan lertzen dan  
inipar-lore gorriak,  
zure bekoki barean  
dirdiz-dagiten Zeru-izpi oiek,  
diote izketa ixilean.

Zorionekoak, ziñez,  
oben-kaiako kateak  
apurtuta, zuk bezela,  
malko-itxasora jotzen dutenak,  
ontzi-zai, Josu dutela...!

JAUREGI TAR KOLDOBIKA